# LAN BATZORDE IREKIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***TALDEA*** | **OBRA BATZORDEA** | | |
| ***IRAUPENA*** | **2 ORDU** | ***EGUNA*** | **2016-03-09** |
| ***GAIA*** | | ***DEIALDIA*** | **OBRA BATZORDEA** |

## *PARTE HARTZAILEAK*

| | | | |
|---|---|---|---|
| Iñaki Etxezarreta | Joxe Ramon Peñagarikano | Ibon Elgarresta | Endika Igarzabal |
| Pili Mintegi | Nikolas Igarzabal | Iñaki Oiarbide | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

## *ERABAKIAK*

| *GAIA* | *EKINTZAK* | *ARDURADURA* | *NOIZKO* |
|---|---|---|---|
| **FRONTOI AZPI** | • Kasua daraman abokatua aldatu da, orain hartu dena urbanista delako. | | |
| **IGERIBAR ERROTA** | • Obra egin zen eta udalak ez du aportazio ekonomikorik egin. Herriarentzako aberasgarria denez errota, nolabait laguntzea ondo ikusten da.<br>• Ekintzen bidez edo, nola lagundu genezake? | | |
| **Irizar-Maiora** | • 2-3 bilera izan dira eta akordio posible batera iritsi da udala Irizarrekin. Kontua da, irizarrek 3 aldetako kontrratu moduko bat sinatzea nahi duela, baina abokatuak aholkatzen du bi kontratu alde-bikotakoak izan behar dutela.<br>• Maioratarrekin bilduko gara aste honetan egoera zein den azaltzeko. Irizarrekin akordio batera iritsi beharko dute. | | |
| **Ardantza aldeko auzoa** | • Aurrekontu bat jaso da farola txiki batzuk ipintzeko (0,9m inguru). Ez zaigu batere gustatu, oso eskasak diralako. Orain daudenak altxatzen saiatuko gara, merkeagoa izango da eta hobeto geratuko da. | | |
| **Elurra** | • Elurra egiten duenerako prozedura bat definitu beharko da. Jendeak Mutteiri zuzenean deitzen dio norbere interesen arabera eta, konpromezu batean jartzen dituzte. | | |
| **Gas Naturala** | • Herrian jartzea posible, posible da, baina bi urteko epea beharko litzateke martxan jartzeko. | | |
| **Internet konexioa** | • Fibra optikoa herri guztian zehar jartzeko lanak hasiak dira, Aztirin jarri dute eta Alegiko puntu batzutan ere ari dira. Herriko hainbat puntutara eramango da, eta gero bizilagunekin biltzeko asmoa dutela esan digu Movistarrek. | | |
| **Aparkalekua** | • Egun puntualetarako ondo etorriko litzateke, egunerokoan ez dakigu erabiliko litzatekeen kurutzbakar inguru hartan jarri ezkero. | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Pixka bat berdindu eta grabarekin agin ahalko litzateke zerbait, bi altueratan edo.<br><br>• Autobusarentzat ere leku bat prestatzea komeniko litzateke.<br><br>• Herrian taxi lizentziarik ba al daukagu? | | |
| **Plazako begiratokia** | • Aurrekontu bat eskatu dugu ikusteko zenbat kostatuko litzatekeen baranda bat ipintzea.<br><br>• Ze ardura izango luke udalak zerbait pasatu ezkero? | | |
| **Harri solteak** | • Batzoki atzean eta frontoi ondoan | | |
| **Pantanoa** | • Jesus Cospedal delako batekin bilera bat egingo da, egoera zein den enteratzeko eta zein den etorkizuneko asmoa. | | |
| **Luiziak** | • Azkeneko euriteek hainbat luzi eragin dituzte: Izerdiko bidean, Agerreko askatik goraxeago, Ermenteizahar parean eta Anbuko kruzea baino lehen. Udalaren ardura hauetako 3ena litzateke. | | |
| **Ehizko herribidea** | • Aurrekontua eskatu da, ea zenbat izango litzatekeen grabarekin konpontzea.<br><br>• Arkitektoa ari da herriko baserri bide guztien diagnostiko bat egiten, Aldundiak eskatuta. | | |
| **Alegiko bidegorria** | • Nola dagoen enteratu. Alegiko bizilagunek horren beharra dagoela azaldu dute. Hiru udalen artea, Alegirainoko zatia egiten behintzat saiatu behar genuke. | | |
| **HURRENGO BILERA: maiatzak 4, 19:00tan** | | | |